PILOTA: IKER MURUAMENDIARAZEK ASPE ENPRESA UTZ DEZAKE AURKI /10

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko urtarrilaren 10a • IV. urtea • 93. zenbakia • DOAN B



BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




Goienka2a
'Drogak: gizarte-gaia' erakusketa laster zabalik Arrasaten

MOHAMED SALEM EMBAREK
*"Bide baketsuak erabili nahi ditugu sahararrok, burujabetza lortzeko"* /9

DEBAGOIENA
Baserrietan ere erabilitako plastikoak batzen hasiko dira /4



## *Ezusteko galanta autobideko lanetan*

Eibar-Gasteiz autobidean, Soraluzeko zubian, ezustekoa izan zuten eguazten arratsaldean. Argazkian ikus daitekeen porlanezko pieza aurrefabrikatua jartzen ari zirela, bi zutabe elkarrekin lotzen dituen errepide tarteko beste hiru pieza mugitu egin ziren. Autobideko lehenengo zatian gertatu zen ezustekoa, Larreategi zubibidean, hain justu ere. Zubi hori 50 bat metro garai da. Ezbeharraren ondorioz, Soraluzetik Maltzagara arteko kaminoa itxi egin zuten, domekara arte. Hori dela eta, Elgetatik ohi baino askoz ere zirkulazio handiagoa ibili da. /4

ARGAZKIA: IBAN ARANTZABAL

ASTEKO GAIA: EUSKO IKASKUNTZA /2-3

# Aro berria, baina betiko helburuekin

Jabier Retegi bergararra izendatu dute Eusko Ikaskuntzako presidente. Aro berria zabalduko da kultura eta ikerkuntza erakundearendako; arduradunek diote berrikuntza garaia dela oraingoa. Hori bai, 1918ko espirituari eutsiko dio: euskal kulturaren gaineko ikerkuntza eta lana sustatzea.

## Urtea hasi eta berehala heldu da aurten elurra, iragarri zuten moduan

Eguen goizerako elurra zen ibarreko hainbat lekutan, gainetan, batez ere: Gatzagan, Arantzazun, Elgetan, Elosun, Kanpanzarren... Eta kaminotik elurra kentzeko makinek lanean ziharduten ordurako. Lerrook idazterakoan (atzo, eguerdian), ibarreko mendateak zabalik zeuden, baina beharrezkoa zen arretaz gidatzea. Iragarpenek, hala ere, zioten tenperaturak behera egingo zuela eta elurra itsasertzeraino helduko zela. Hortaz, kaminoan ibiltzeko baino gehiago, etxean sutondoan egoteko moduko giroa. /4

GURELAN
Muntaia Elektrikoak
[lehen BASILIO GUISASOLA]
MANTENTZE-LANAK ETA INSTALAZIO INDUSTRIALAK
Mantenimendu orokorra.
Makinariaren birmoldaketa.
Automatak programatzea.
CNC, serbomotoreak, abiadura-aldagailuak, etab...
30 URTEKO ESPERIENTZIA SEKTOREAN
Tfnoa.: 943 76 07 00 - Faxa: 943 76 56 23 - San Lorenzo, 15 - BERGARA

LORAMENDI KIROLAK
BEHERAPENAK
INTERSPORT Arrasate

DEBAGOIENA

### Omenaldia egingo diote domekan 'Kanto' preso ohiari

Luis Mari Azkargorta *Kanto* preso ohiari omenaldia egingo diote domeka arratsaldean Aramaion –haren jaioterria–, Arrasaten eta Bergaran –egun bizi den herria–. Martitzenean irten zen Martuteneko espetxetik, Ruth Alonso epaileak baldintzapeko askatasuna eman ondoren. 14 urte egin ditu kartzelan.

DEBAGOIENA/4 • HERRIZ HERRI/5 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Eusko Ikaskunt aro berria, ibarr

## Jabier Retegi bergararra da Eusko Ikaskuntzako presidentea, eta etapa berria zabaldu nahi du

LEIRE KORTABARRIA

Joan den abenduaren 28an, debagoiendar bat, Jabier Retegi, Euskal Herriko kultura eta ikerkuntza erakunde garrantzitsuenetariko bateko presidente izendatu zuten: Eusko Ikaskuntza erakundekoa, hain zuzen ere. Horrenbestez, Debagoienarekin lotura handia izan duen euskal erakunde baten bosgarren presidente bilakatu zen 65 urteko bergararra, eta horietatik, lehenengo debagoiendarra.

Eusko Ikaskuntzak hezkuntza eta, era berean, kudeaketa arloetan esperientzia handiko presidentea aukeratu du oraingoan. Ekonomialari eta ingeniari ikasketaz, irakasle, Eusko Jaurlaritzako sailburu, enpresa kudeatzaile eta, azken urteotan, Mondragon Unibertsitateko errektore izan da Retegi, besteak beste. Kargua hartzearekin batera, Retegik bere asmo orokorraren berri eman zuen: "Eusko Ikaskuntza sortu zeneko espiritu berritzailea berreskuratu nahi dut, eta erakundearendako beste ikuspegi bat ezarri". Gaineratu zuen, printzipio kulturalak ahaztu barik, enpresa ikuspegitik zuzendu nahi zuela aurrerantzean erakundea. Badirudi, hortaz, aurten 85 urte beteko dituen Eusko Ikaskuntzak aro berri bati ekingo diola.

### LEHEN KONGRESUA, DEBAGOIENEAN

Eusko Ikaskuntzak hainbat aro bizi izan ditu; hala ere, beti eutsi izan dio sorrerako espirituari. 1918an sortu zuten Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundiek, eta urte hartan bertan egin zuten I. Kongresua, Oña-



Abenduaren 28ko Batzar Nagusia. Ezkerretik eskumara: Sixto Jiménez, Aingeru Zabala, Manu Uriarte, Jabier Retegi, Jean-Claude Larronde,

ALMACENES ARRASATE
650 m² zure zerbitzura merkatuko marka onenekin: Fagor, Bosch, Philips, Sony...
Etxetresna elektrikoak eta orain... SUKALDEAK
Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Doan egingo dizkizugu proiektua eta aurrekontua. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3 • Roneo ondoan




Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 • Ordutegia: 09:00-13:00 eta 15:00-20:00 • Zapatu goizetan zabalik.

# zaren etik



EUSKO IKASKUNTZAREN ARGAZKI ARTXIBOA

José Luis de la Cuesta eta José Manuel Castells.

tin. Asmoa zen euskal kultura maite dutenen bilgune iraunkor bihurtzea. Ordudanik, Eusko Ikaskuntza da euskal ikerkuntzari lotura eman dion erakunde bakarra, eta Euskal Herri osoan ofiziala den kultura eta ikerkuntza erakunde bakarra da.

Gaur egun, seguruenik, kaleko jendeari ezagunago egingo zaio Euskaltzaindia Eusko Ikaskuntza baino, baina azken horren magalean sortutakoa da hura. Eusko Ikaskuntzaren beste ekarpen handi batzuk bezala, 1936ra bitartean gauzatu zen hura; horrekin batera, Euskal Unibertsitatearen funtsak ipini zituen; ikastoletarako ikas materiala diseinatu zuen…

### AZKEN URTEAK

Krisialdi sakon baten ondoren, 1978an Oñatin egin zuten berriro batzar nagusia, eta indarberrituta irten zen Eusko Ikaskuntza. Han definitutako xedeak, hauek: "Euskal kulturaren ohiko balioei eustea, euskal kulturaren maila jasotzea eta mundu osora zabaltzea, eta euskal kulturaren balio berriak sortzea".

Gaur egun, ia hiru mila bazkide ditu Eusko Ikaskuntzak, eta horiek ditu oinarri. Bestalde, azken urteotan, erronka berriei eutsi die erakundeak. Ikerkuntza du baliabide nagusi, eta urtean hainbat dirulaguntza dei egiten ditu. Era berean, azken hamarkadan irakaskuntzari indar handiagoz eutsi dio Eusko Ikaskuntzak, eta eusko ikasketak eta zientzia ikerketa sustatzeko ikasturteak, jardunaldiak eta mintegiak antolatzen ditu. Azkenaldian, teknologia berriak euskal kultura sustatzearen alde erabiltzen hasi da Eusko Ikaskuntza, batez ere, bere internet guneen bidez.

**JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL** / EUSKO IKASKUNTZAKO KUDEATZAILEA

## *"Erakundeak lema kolpe berria behar zuen; orain, gertu dago"*

**Hainbat debagoiendar daude Eusko Ikaskuntzan ardura postuetan. Horien artean, Jose Mari Velez de Mendizabal aramaioarra dugu. Urteotan da erakundeko kudeatzaile eta *Euskonews.com* aldizkariko editore taldeko kide.**



**Debagoiena esanguratsua izan da Eusko Ikaskuntzaren ibilbidean… Erakundea gurean nahiko hedatua dago?**

Ez, asko falta zaio oraindik. Egia da lehenengo kongresua Oñatin izan zela, baina horrek orduko testuinguruan zuen esanahia, eta nahiko sinbolikoa izan zen; kontuan hartu behar da Eusko Ikaskuntzaren hasierako asmoetariko bat euskal unibertsitate bat sortzea zela. Sorreran debagoiendar askok hartu zuten parte, batez ere, arrasatearrek.

**Euskal Herrian, orokorrean, jendeak badaki zer den Eusko Ikaskuntza?**

*"Zuzendaritza talde berriarekin, erakundea aldaketa gehiagorako gertu dago"*

Geroago eta jende gehiagok daki zer den eta zer egiten duen Eusko Ikaskuntzak; batez ere, unibertsitate esparruko gazteek. Bazkideen batez besteko adina jaitsi egin da, eta hiru mila bazkideetatik, mila bat unibertsitatetik dator.

**Horrek Eusko Ikaskuntzaren lanen kalitatea igotzen lagundu du?**

Kalitatea igo egin da, bai: alde batetik, bazkideak geroago eta prestatuagoak datozelako; eta, bestetik, erakundearen kalitate parametroak eurak ere altuagoak direlako orain.

**Jabier Retegiren izendapena dela-eta, esan zenuen aldaketa garaia zetorrela. Hala da?**

Orain dela 9 urte hasi zen Eusko Ikaskuntza barne egitura aldatzen eta bide berriak zabaltzen eta kudeaketa mota berri bat indarrean jartzen. 1992. urtea inflexio puntua izan zen, eta erakundeak lema kolpe berria behar zuen. Orain, jauzi horretarako gertu dago, lantalde berriarekin.



OJANGURE

**BERGARAN** Eusko Ikaskuntzaren lehen kongresua Oñatin izan zen. Gerora, Debagoienarekin lotura estua izan du betidanik erakundeak, oraintsu ibarreko bat presidente izendatu arte. Bere bosgarren kongresua Bergaran egin zuten, 1930ean. Argazkian, Geronimo Etxaniz, Antonio Pagoaga, Arturo Kanpion, Karmelo Etxegarai eta, lehen planoan, Telesforo Aranzadi agertzen dira.

IRAKASKUNTZA

### 1996tik aurrera, eskaintza indartu du Eusko Ikaskuntzak

**Ikerkuntza, irakaskuntza eta dibulgazioa dira Eusko Ikaskuntzaren hiru funtsak. Irakaskuntzari dagokionez, lan eskerga egiten du. Hona hemen egitasmo batzuk: Jakitez programa, euskal kulturan adituak sortzeko; urrutiko elkarreraginezko masterrak, Euskal Herrian telematikaz eskaintzen diren lehenak; Lurralde Antolakuntza Plana; Oñatiko Unibertsitatea izeneko ikasturte monografikoa; eta beste hainbat. Horiek guztiak 1996tik aurrera ezarritako programak dira.**

ARGITALPEN BATZUK

### Urteko, 40 argitalpen; ezagunenak, bi




***Asmoz ta Jakitez* berripapera argitaratzen da hilero, erakundearen berri emateko. Zazpi mila ale argitaratzen dituzte aldiro. Hori da Eusko Ikaskuntzaren argitalpen ezagunena, baina *Euskonews.com* astekariak ere bide handia egin du 1998a ezkero. Euskal zientzia eta kulturari eskainitako webgune hori lau hizkuntzatan egiten da eta mundu osoko euskaltzaleen erreferentzia bihurtu da.**

BAZKIDEAK

### Hiru mila bazkidetik gora ditu Eusko Ikaskuntzak

**Eusko Ikaskuntzak bazkideengan du lan oinarria: "Bazkide bakoitzaren ekarpen zintzo eta zorrotzean datza azken emaitza", dio erakundeak. Bazkide egiteko aukera dago *eusko-ikaskuntza.org* webgunean bertan. Bazkide egitearekin batera, lan arloa aukeratu behar da. Sail bakoitzak urtean birritan eratu behar ditu batzarrak, bazkideen egitasmoak bateratzeko.**

MODERNOTASUNA

### Eusko Ikaskuntzaren entziklopedia, Interneten

**Zentzu askotan, erakunde iraultzailea izan da Eusko Ikaskuntza. Adibidez, 1996an, Auñamendi argitaletxearekin itun bat sinatu zuen, erakundeak ordura arte argitaratutako guztia eta bere entziklopediako edukiak eguneratzetik sortuko ziren materialak Internet bidez eskaini ahal izateko. Entziklopedia horrek 25.000 orri ditu, eta 50.000 irudi eta argazki.**



IBAN ARANTZABAL

Soraluzen eraikitzen ari diren Larreategiko zubibideko porlanezko pieza bat, 240 tonakoa, zintzilik geratu zen.

# Zintzilik geratu da A-1 autobideko Larreategiko zubibideko pieza bat

*Istripuaren ondorioz, itxita dago Soraluze eta Maltzaga arteko kaminoa*

MAIDER OSA/ENEKO AZKARATE

**Eibar-Gasteiz autobidean, Soraluzeko zubian, ezustekoa izan zuten eguazten arratsaldean. Porlanezko pieza aurrefabrikatu bat jartzen ari zirela, bi zutabe pare elkarrekin lotzen dituen errepide tarteko beste hiru pieza mugitu egin ziren.**

Autobideko lehenengo zatian gertatu zen ezustekoa, Larreategi zubibidean, hain justu. Hau da, Soraluze atzean utzita, Unamuno enpresatik aurrez aurre ikusten den zubian. Zubi hori 50 bat metro garai da.

Erdi erorian geratu ziren porlanezko pieza horietako bakoitzak 50 tonako pisua du. Hiru piezen artean, hortaz, 150 tonako pisua geratu zen burdinazko karroak eusten zuela. Beste pieza, berriz, tarte horretako errepidea lotzeko falta zen bakarra, altzairuzko harietatik zintzilik geratu zen. Horrez gain, kontuan hartu behar da burdinazko plataformak beste 40 bat tonako pisua hartzen duela.

Gertatutakoaren aurrean kezka nagusia zera da: okerrenera jota, burdinazko hiru pieza horiek behera eroriz gero, zubiari kontrapisua geratzen zaiola zutabearen beste aldetik. Horren ondorioz, zubiaren zati handi bat erortzeko arriskua legoke.

**ERREPIDEA ITXITA**

Hori dela eta, Maltzagatik Soraluzera bitarteko errepide tartea itxi egin zuen Ertzaintzak eguazten arratsaldean. Gutxienez, domekara arte egongo da itxita.

*Bergara eta Maltzaga arteko autobide zatiaren irekiera atzeratu egingo da*

Hori dela eta, Eibarrera zihoazen autoak Elgetatik bideratu zituen Ertzaintzak. Bilborantz joan behar zuten pisu handiko ibilgailuendako, ostera, Arrasatetik Durangorako bidea hartzea gomendatu zuten. Azkenik, Donostiara joateko Bergaratik Zumarragara joatea, Deskargako portua pasatuta. Horren ondorioz, auto ilara luzeak izan dira egunotan Elgetan, ohikoa baino ibilgailu dezente gehiago pasatu dira-eta handik.

**AUTOBIDEKO LANAK LUZATU**

Maltzaga-Gasteiz autobideko lehenengo zatia apirilean irekitzeko asmoa zuten. Dena dela, lehenago ere justu samar ari ziren epe hori betetzeko. Eguaztenean gertatutakoa ikusita, oraindik ere gehiago atzeratuko da errepide tarte horren irekiera. Ikusteko dago, gainera, zubibideari zer konponbide aurkitzen dioten. Esan behar da, bestalde, zubibide horrekin lehen ere hainbat arazo izan dituztela.

# Urtarrilaren 22an hasiko dira batzen baserrian erabilitako plastikoak

OXEL EROSTARBE

**Aurten ere baserrietan erabiltzen diren plastikoak batzeko zerbitzua jarri du abian Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarteak. Urte osoan barrena egongo da abian zerbitzua, eta dagoeneko zehaztu dituzte bilketa lekuak.**

Urtarrilaren 22an baserri ingurunean sortutako plastikoak batzeari ekingo dio Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarteak. Hain zuzen, plastiko mota hauek batuko dituzte: siloa estaltzeko eta belar boletan erabiltzen diren plastiko beltzak; negutegietan eta ortuetan lurra estaltzeko erabiltzen diren plastiko beltzak eta negutegietako plastiko zuriak. Hala, ez dute plastikozko sokarik batuko; lokarri bezala bakarrik erabiliko dira.

Urtarrilean hasi eta urte osoan barrena batuko dituzte plastikoak Mendi Nekazaritza Elkartekoek. Hileko azken eguaztenetan jasoko dituzte erabilitako plastikoak. Aurreko egunean, arratsaldean, Mendi Nekazaritza Elkartekoek zehaztutako lekuetan utzi behar dira erabilitako plastikoak.

**PLASTIKOAREN BILKETA LEKUAK**

Arrasaten: Bedoña auzoan eta Garagartza auzoan, hondakinak batzen diren tokian; Bergaran: Ugarrixako granja parean, Elosun, Santutxun, Muinondoko trenbide ondoan eta San Juan auzoko eliza aurreko plazan; Oñatin: Zanartuko Zuazola inguruan, Murgialdaingo Asentzio ermitan, Olabarrietako autobus geltokian eta Eteo atzeko aldean; Aretxabaletan: Lausietako Izurieta bidegurutzetik 100 metrora, Bainuetxean, Mendiolako bide parean eta Oroko bidegurutzean; Eskoriatzan: Zarimutzeko bidegurutzean; Antzuolan: Eguberri baserrian; eta Gatzagan: Dorletako bidegurutzean.




## Debagoieneko mendateak, atzotik elurtuta

Iragarri zuten moduan, elurraren izara zuriak hartu zituen atzo, eguena, Debagoieneko mendi eta mendateak. Eguerdirako elurra zegoen Kanpazar, Deskarga, Gatzaga, Elgeta eta Elosuko bideetan, baita Arantzazun ere. Arazoak izan arren, eguerdira arte, mendaterik ez zen ibilgailuendako itxita. Elur makinak lanean ziharduten orduirako, bideetan zegoen elurra kendu eta gatza botatzen. Asteburrako ere elurra iragarri dute eguraldi adituek. /O.E.




ARRASATE

## Oharrak euskaraz idazteko ereduen bilduma argitaratuko dute

Euskaraz idatzi gura duenari hala egiteko erraztasunak emateko helburuarekin, Arrasateko Udalak oharrak euskaraz idazteko ereduen bilduma argitaratuko du. 48 orrialdeko bildumak dira eta 80 bat eredu ditu bakoitzak. Adibidez, ezkontzetarako gomitak egiteko ereduak, eskelak edo eskerronak egiteko ereduak eta antzerakoak izango dira.

Otsailaren hasiera aldera argitaratuko dituzte; guztira, 2.500 ale. Adibidez, Udalarekin harremanak euskaraz izaten dituztenek etxean jasoko dute. /U.M.

ANTZUOLA

## Gazteendako lokala errentan hartzeko negoziatzen ari da Udala

Aspaldidik ari da Udala gazteendako lokal baten bila. Mireia Unamuno alkatearen esanetan, lokal berezia behar dute gaztetxea jartzeko. Orain arte topatu dituzten lokalen jabeek ez dizkiete errentan eman nahi izan. Orain, baina, lokala errentan emateko gertu dagoen ugazaba bat topatu dute, eta negoziazioetan ari dira.

**ARATUSTEETARAKO BATZARRA**

Aratusteetan dantza egiteko gertu daudenek hilaren 13an, astelehena, batzarra izango dute Herri Ikastetxean, 19:30ean. /A.I.

ELGETA

## Hasi dira industrialdearen urbanizazio proiektua egiten

Pagatzako industrialdearen urbanizazio proiektua Toledo Taldeari esleitzea erabaki du Udalak. Proiektuak 125.000 euroko aurrekontua du. Hala, Toledo Taldeak hilabete bi izango ditu proiektua Elgetako Udalari aurkezteko.

Udalaren asmoa industrialdea Lehenengo Errekaraino zabaltzea da. Lan horiek 3.908.030 euroko aurrekontua izango dute eta udaberrian hasiko dira egiten. Teknikariak hasiak dira industrialde berrian kokatuko diren enpresekin harremanetan. /O.E.



AINTZANE GARDOKI

ARAMAIO

## Euskararen normalizazioan laguntzeko, herriko mapa toponimikoa egin du Aramaioko Udalak; 1.200 toponimotik gora jasotzen ditu mapak

Euskaltzaindiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, herriko toponimoak batu, normalizatu eta herriko mapa osatu du Ikermap enpresak, Aramaioko Udalak hala aginduta. Auzoen, baserrien, erreken, basoen, ermiten, elizen… izenak batu dituzte mapa horretan; 1.200 toponimotik gora. Gaur egungo ahozko erabilera eta dokumentu zaharretako datuak hartu dituzte kontuan lekuen eta gauzen izenak zehazteko orduan. Hori guztia, Euskaltzaindiak ezarritako arauetara egokituta.

Dagoeneko aramaioarrek jaso dute mapa hori etxean, eta datorren eguenean jendaurreko aurkezpena egingo dute, sortu diren zalantza guztiak argitzeko. Kultura etxean izango da aurkezpena, 18:30ean. /U.M.

OÑATI

# Txintxurreta enpresako langileak greban daude eguaztena ezkero

Greba mugagabeari ekin zioten Oñatiko Txintxurreta enpresako langileek eguaztenean. Langileak ez daude ados enpresak ezarritako soldata taulekin, eta zera eskatzen diote enpresari: lan bera egiteagatik berdin irabaz dezatela langileek.

Desadostasun horiek direla eta, hainbat batzar egin dituzte Txintxurretako langileek azkeneko hilabeteetan.

Azaroan eta abenduan hainbat batzar egin zituzten, eta hasieratik erakutsi zuten greba egiteko asmoa. Oraingo astean egin dute azkeneko batzarra, eta azkenean, berretsi egin dute greba egiteko asmo hori. Mugagabeko grebari ekin diote, gainera.

Enpresak euren eskakizunak onartu arte edo, behintzat, enpresa langileen ordezkariekin berba egiteko gertu azaldu arte greban jarraitzeko asmoa azaldu zuten Txintxurretako langileek.

**HAINBAT MOBILIZAZIO ANTOLATU DITUZTE**

Mugagabeko grebaz gain, hainbat mobilizazio ere antolatu dituzte langileek, euren eskubideak aldarrikatzeko.

Eguaztenetik, lanuzteekin hasi zirenetik, goizez eta arratsaldez elkartzen dira langileak lantegiaren aurrean. 13:30etik 14:30era, berriz, bilkurak egiten dituzte Torreauzoko bidegurutzean.

Gaur, egubakoitza, manifestazioa egingo dute, 18:00etan, Oñatin, eta beste zenbait elkarretaratze egiteko asmoa ere badute, Herriko Plazan. /A.I.

**Zertzelada**

**Txintxurretako langileak ez daude ados enpresak ezarritako soldata taulekin; lan bera egiteagatik guztiek berdin irabaztea eskatzen dute.**

BERGARA

# Etxeko ardurak trukatzeko ikastaroa antolatu du Udalak

Etxeko ardurak gizonezko eta emakumezkoen artean trukatzeko lantegia antolatu du Ongizate Sailak. Iaz ere antolatu zuen, eta izandako harreragatik berriro antolatzea erabaki du.

Helburua da normalean emakumeek etxean egin izan dituzten lanak gizonek ikastea, eta gizonek egin izan dituztenak emakumeek ikastea. Horregatik, lantegia bi ataletan banatu dute. Emakumeen lantegian gai hauek landuko dituzte: iturgintza, elektrizitatea eta brikolajea. Gizonezkoenean: joskintza, lisatzea, sukaldaritza eta garbiketa. Izenematea edo informazioa nahi izanez gero, Gizarte Zerbitzuetan edo 943 77 91 25 zenbakian. /M.B.



ARTXIBOA

Etxean guztiz erabilgarriak diren gauzak ikasten dira ikastaroan.

ARETXABALETA

## Babes ofizialeko 220 etxebizitza egiteko plana onartu du Udalak

Udalak Deba ibaiaren ezkerraldean –kirol etxetik hasi eta Lausitarainoko tartean– 345 etxebizitza egiteko plan partzialaren aurrerapena onartu zuen azken osoko bilkuran. Etxebizitza horietatik %60, hau da, 220 etxebizitza, babes ofizialekoak izango dira. Plan partzialaren aurrerapenean, gainera, zehaztu zuten bi motatako etxebizitzak egingo dituztela: batetik, txalet itxurakoak; eta, bestetik, hainbat solairutakoak. Plan partzialaren aurrerapena otsailera arte egongo da ikusgai, hari iradokizunak egin ahal izateko. /A. L.

ESKORIATZA

## Atxorrotx elkarteak bazkide berriak egiteko kanpaina hasi du

Atxorrotx Hirugarren Mundurako Elkarteak, urtero moduan, elkartearen gaineko informazioa zabaldu du herritarren artean. Hondurasen eta Boli Kostan abian dituen bost proiektuen gaineko informazioa emateaz gain, elkarteak dituen diru sarreren eta gastuen berri ere eman du. 1997an sortu zen elkartea 45 bazkide izatera heldu da, baina kopuru horri eutsi eta, halaber, handitu guran, bazkide berriak egin gura ditu. Elkartasuna eman gura duenak 943 71 53 85 zenbakira dei dezake. /A.G.

LEINTZ GATZAGA

## Herriko gazteak, Euskal Ligako Eskoriatzako taldearen kontra

Urte berriarekin, aurreko egunetako ajeak kendu gura-edo, herriko gazteek gorputzak astindu gura izan zituzten, nonbait; izan ere, zapatilak jantzi, eta areto futbolean Euskal Ligan jokatzen duen Eskoriatzako taldearen kontra jokatu zuten. Partidua Eskoriatzan jokatu zuten. Ez zen jende askorik batu kiroldegian, baina herriko jarraitzaileek giroa berotu zuten. Gatzagarrak 2-0 joan ziren aurretik, baina partidua 5-3 amaitu zen eskoriatzarren alde. Maiatzean, bueltako partidua jokatuko dute. /A.G.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 10a

# Galiziako egoera erretratutan

## Erretratu horiek *Prestige* itsasontziak Galizian eragindako hondamendiaren erakusle dira. Horrekin batera, jendearen erantzuna ere islatzen dute

ARGAZKIAK ETA TESTUA: XABIER URZELAI

Azkeneko GOIENKARIAn ibarreko 200 lagunek Galizian boluntario lanetan bizi izandako esperientziaren berri eman genizuen. Hala ere, motz geratu ginen. Motz geratu ginen, ehunka argazki genituelako erakusteko eta gutxi batzuendako lekua baino ez genuelako. Ondoan dituzuen argazkiak *Prestige* itsasontziak Galizian eragin duen hondamendiaren erakusle dira. Eta, horrekin batera, ibarreko bizilagunek Galizian bizi izandakoa ere erakusten dute. Azken bi hilabeteotan Galiziako ehunka argazki eta irudi ikusi ditugu, eta oraindik ere asko ditugu ikusteko. Edozelan ere, hondartzetako irudi horiek traje zuridun boluntarioekin beteta egon daitezela.

**ASTEBURUAN, ERREPORTAJEA GOITB-N**

Goiena Telebistako lankideak ere Galizian izan ziren ibarreko boluntarioekin batera. Bi egun horietan, boluntarioekin egoteaz gain, hango arrantzale, kazetari, udaleko teknikari, zinegotzi, eta beste hainbat bizilagunekin berba egiteko aukera ere izan zuten.

GOITBk prestatutako erreportajea eguaztenean eman zuten lehenengoz, baina asteburuan ere egongo da aukera hura ikusteko. Zapatuan eta domekan, arratsaldeko ordu bietan, ordubeteko erreportajea izango duzue ikusgai. Aukera paregabea Galiziako egoera beltza hurragotik bizi izateko.

> *"Asteburuan, GOITBk Galiziako egoera aztertuko duen erreportajea eskainiko du"*

> *"GOITBk, ibarreko boluntarioekin egoteaz gain, hango bizilagunen berri ere jaso du"*



Ibarreko boluntarioak, autobusaren zain, lanerako gertu.



Kuboek lekua hartu diete txalupei.



Leku askotan, fuel-olioa eskuz jaso behar.



Fuel-olio asko dagoen lekuetan militarrak dabiltza lanean.

# ra,



Hondartzak garbitzea ez da horren gaitza, baina harkaitz artean dagoen fuel-olioa garbitzeko zailtasun handiak daude.





boluntarioek behar den moduko babes-jantziak izan zituzten.



Lan gaitza eta gogorra hondartzetan egin beharrekoa.



Carnotako kiroldegia boluntarioendako bizileku bilakatu da.



Kontainerrak betetzerakoan, beste hondartza batera joan behar lanera.



Muskuiluak arrantzatzeko tresnak luzaroan egongo dira uretatik kanpo.

# Zabalik



MARIJO DEOGRACIAS

## *Urte berri on?*

**Aznarrek bere egin izan du beti terrorismoaren kontrako "gerra". Berea, azken batean, Bushen itzalpean egotea da eta hark hau egin eta PPko panpina-arloteak beste hura.**

**Ameriketako Estatu Batuetako ekonomia eta gizarte politika txarto doala eta, bota errua Ben Landenen lagunei. Hartara armagintzan erabili beharreko aurrekontua igotzeko aitzakia izango du Bush JRk. Eta badaezpada ere, aberatsenen zergak jaitsiko ditu, ustez ekonomiak behar duen pizgarri legez.**

**Eta Bushen espainiar bertsioak hara non eta Galiziako hondamendiaz behar bezala arduratu beharrean (kontuan izanik Frantzia eta Portugalera ere zabaldu dela marea beltza), terrorismo delituaz akusatutako presoek kartzela zigorrak bere osotasunean bete ditzaten legea berrituko duela iragarri du.**

**Eta bitartean Mariano Rajoi (eta ez Raxoi) ministroak Nunca Mais taldea BNGren talde erradikala dela esaten.**

**Ondo bai, oso ondo hasi dugu urte berria.**

**Asteburuko omenaldiak direla eta, Entzutegi Nazionalak ezer esan aurretik Lakuako gobernuak omenaldirik egiten ez duela lagako aurreratu du; badaezpada!**

**Olentzero ez da ez batere ona izan gurekin. Ikazkinak, bere oparirik preziatuena, ikatza, ez du behar zuen lekura eraman eta jakina, ikusi ezean, ez dagoela esan behar. Horixe egiten dute politikariek ere. Baita zenbait komunikabidek ere. Gogoan duzue joan zen zapatuko manifestaldia? Beno, manifestaldiak? Ze, bat beharrean, hiru egin ziren gure hiriburuetan. Indarrak batu beharrean… Espainiarrak gustura egongo dira ba gure buruari harrika egiten diogun bakoitzean!**

**Urte berri on guztioi eta, aupa Galizia!**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar-ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com




## Arrasateko herriari

Pasatako egun hauek bereziak izan dira. Familiarekin ospatzeko egunak izan ohi dira, lagunekin egoteko, opariak elkartrukatzeko… Baina, zoritxarrez, Gabon hauetan, Euskal Herrian ez gara denok egon, ezin izan dugu guztiok batera jan turroia.

650 ohe huts, iheslariak kontatu gabe, 650 familia baino gehiago esperoan, justizia egingo delakoan. Esperoan euskal presoak Euskal Herrira ekarriko dituztelakoan, esperoan zigorraren 3/4ak beteta dituztenak kalera atera dituztelakoan, esperoan kode penaleko 92. Artikulua beteko dutelakoan (gaixo dauden presoak kalera), esperoan kartzelako tratu txarrak amaitu direlakoan…

Gure esku dago neurri batean beraien esperoa gutxitzea, edo desagertzea. Gure elkartasunak, guztion elkartasunak, hobetuko duelako egoera petral hau. Horregatik, mila esker Arrasateko dendariei, zuen elkartasun ekonomikoarengatik. Zuen laguntzari esker, gau ilunean presoen senide eta lagunon kriseiluak argia ematen jarraitu ahal izango duelako.

Azkenik, mila esker baita dirua jasotzen lagundu diguzuenoi ere. Eskerrik asko berriz ere zuen sostenguagatik.

Besterik gabe, Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

## Al-Anon ermandadearen urteurrena Eibarren

Al-Anon alkoholikoen familien elkarteak 25. urteurrena ospatuko du Eibarren. Hori dela eta, informazio berezia eman gura dugu prentsan eta irratian. Hala, ezagutzen gaituenak, aukera izango du Eibarren, urtarrilaren 17an (egubakoitza) izango den hitzaldi informatibora joateko; 19:00etan, Portalea ekitaldi-aretoan.

Baina zer dira Familia Al-Anon taldeak? Familia Al-Anon taldeak edale problematikoen (Alkoholiko Anonimoen kide izan edo ez) ezkontide, senide, seme-alaba eta lagunek osatutako ermandadea dira. Kideek euren sendotasun, esperantza eta esperientziak partekatzen dituzte, euren arazoak konpontze aldera, hala nola: beldurra, ziurtasunik eza, ulermenik eza (bai eurei, bai alkoholikoei), eta alkoholismoak kaltetutako bizitza pertsonala, "familiaren gaixotasuna".

Alkoholiko Anonimoen kide da Al-Anon? Ez. Al-Anon ermandade bereizia da. Sortu zen, beste pertsona baten edarizaletasunak norberari bizitza pertsonala kaltetzen ari dela edo dagoeneko kaltetu diola uste duela-eta, kaltetutako horren beharrak asetzeko.

Al-Anonendako oso garrantzitsua da kideen anonimotasuna. Ez dauka afiliaziorik, ezta kuotarik ere kide izatearren.

Zelan jarri harremanetan Al-Anonekin? Areako telefonora dei dezakezue (943 47 54 02) edo, gura baduzue, beste honetara: 656 73 81 60. Era berean, aldian-aldian probintzia osoan izaten diren hitzaldi informatiboetara joan zaitezkete. Laster, Eibarren izango den horretara kasu.

Aldez aurretik eskerrak eman gura dizkiegu ekitaldira informazio eske joango direnei; izan ere, horrek lagundu egingo digu berriro etortzeko.

Beste barik, agur bero bat.

ARANTZA, AL ANON ELKARTEAREN IZENEAN
Bergara

## Eskerrik asko, guztioi

Arrasateko artzapez-barrutiko espetxepastoralak –Oñatiko, Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako parrokiek osatua– eskerrak eman gura dizkie kristau elkarteei eta pertsona anonimoei, eman dituzten artikulu pertsonalengatik, hala nola: higienearekin lotutakoak, barruko arropak, telefono-txartelak, eta abar.

Artikulu horiek guztiak Martutenera (Donostia) bidali ditugu, eta presoek erabiliko dituzte, ahal duten neurrian euren beharrak asetzeko.

Agur bero bat eta eskerrik asko, denoi. Zorionak eta urte berri on.

ARRASATEKO ARTZAPEZ-BARRUTIKO BATZORDE PASTORALA
Arrasate

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE




Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Saharar errefuxiatuei elkartasuna adierazi eta laguntzeko kanpaina abiatu dute Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkarteak eta hainbat udalek. Helburua da Aljeriako basamortuan bizi diren saharar errefuxiatuei janariak helaraztea. Kanpainaren eta saharar herriak bizi duen egoeraren nondik norakoak eman dizkigu Mohamed Salem Embarek-ek. Fronte Polisarioko ordezkaria da Gipuzkoan.

ENEKO AZKARATE



TOLOSALDEAN EGUNERO

# *Mohamed Salem Embarek*

FRONTE POLISARIOKO ORDEZKARIA GIPUZKOAN

## "Gosea pasatzera behartu nahi gaituzte, Marokoren kontrolpeko autonomia onar dezagun"

SAHARAR HERRIAREKIN GERRA

**"Tristeena da Saharako gerra egunero hiru milioi dolar kostatzen zaiola Marokori. Nork ordaintzen du hori? Ekialde Hurbileko herriek, Saudi Arabiak, eta abarrek"**

BURUJABETZA

**"Bide baketsuak erabili nahi ditugu burujabetza lortzeko, badakigulako arrazoia daukagula. Azkenean, lortuko dugu, oso garesti ordaindu behar izan arren"**

**Beste behin, aurten ere saharar errefuxiatuei elkartasuna adierazi eta janariak bidaltzeko kanpaina abiatu duzue. Zein da helburua?**

Helburu nagusia da Tindouf-en (Aljeria) errefuxiatuta bizi diren ia 200 mila sahararrei oinarrizko janariak helaraztea. Otsailean irtengo da hemendik karabana bete jaki Alacant-erantz, eta han itsasontzia hartuko dugu, Oran-eraino, Aljeriaraino. Gero, handik Tindouferaino. Batez ere, lekaleak, zerealak, pasta, arroza, irina, azukrea, olioa, atun edo sardina latak… jasoko ditugu. Bilketa lanak herriz herri egiten ari gara. Izan ere, Gipuzkoako 32 udalekin harremanak egin ditugu dagoeneko. Bestalde, Euskadiko Kutxan eta Kutxan kontu-korronte zenbaki bana zabaldu ditugu, nahi duenak diruz lagun dezan. Batzen den dirua garraio kostuei aurre egiteko erabiliko dugu: ibilgailuak erosi, aseguruak ordaindu, gasolioa, e.a.

**Zergatik antolatzen duzue elkartasun-karabana hori?**

Saharar herria gorriak pasatzen ari delako eta Aljeriako basamortuan bizi diren sahararrek janarien premia dutelako. Baina zergatik iritsi gara egoera larri honetara? Batez ere, Nazio Batuen ACNUR erakundeak gero eta dirulaguntza txikiagoa ematen digulako eta hainbat herrialdek ez dituztelako konpromisoak betetzen. Esaterako, ACNUR erakundeak 4,1 milioi dolar eman izan ditu urtero janariak erosteko eta errefuxiatuen kanpamentuetako 80.000 sahararri jaten emateko, baina 200.000 saharar gara. Bestalde, aurten, 3,1 milioi dolar bakarrik emango ditu ACNUR erakundeak, hainbat herrialdek ez dituztelako konpromisoak bete.

**Eta zergatik ez dituzte konpromiso horiek bete?**

Arrazoi politikoak tarteko. Saharar herriak 27 urte daramatza borrokan, eta urte hauetan guztietan ezin izan gaituzte mendean hartu, ez indarrez, ezta justiziaz ere. Jakina da Marokok ez duela onartzen erreferendum aske eta demokratikorik saharar herriaren etorkizuna erabakitzeko. Hortaz, armekin mendean hartu ez gaituztenez eta irtenbide demokratikoaren alde ez daudenez, orain, gosea pasatzera behartu nahi gaituzte, Marokoren kontrolpeko autonomia onar dezagun presio egite aldera. Baina hori saharar herriak ez du inoiz onartuko. Nazio Batuen Erakundeak (NBE), Marokoko gobernuak eta Fronte Polisarioak erreferendum aske eta demokratikoa egiteko bere garaian hitzartutakoa ez dute betetzen, ez Marokok ezta NBEk ere. Orain, NBEk esaten digu erreferenduma egin egingo dela, baina lehenbizi Marokoren kontrolpeko autonomia onar dezagula eta, horren ondoren, Saharan egun bizi den populazioak hartuko duela parte erreferendumean. Baina horrek zer esan nahi du? Bada, Saharan bizi diren marokoarrek ere bozkatu ahal izango dutela. Hala, guk diogu horretarako ez dagoela erreferenduma egin beharrik, sahararrok 200.000 bakarrik garelako eta bozkatu ahal izango genuenok, berriz, 86.000 baino ez. Hortaz, argi dago, gosea pasaraziz mendean hartu nahi gaituzte. 27 urte daramatzagu borrokan, azken 12 urteotan gerrari uko eginez, eta saharar herriak lehenengo aldiz goseari beldur dio.

**Zenbat marokoar bizi dira Saharan gaur egun?**

Soldaduak bakarrik 150.000 dira. Esan behar da 1.350 kilometroko horma eraiki dutela basamortuan. Bestalde, poliziak, funtzionarioak… bidali ditu Marokok Saharara. Aaiun-en bakarrik milioi erditik gora marokoar daude. 25 marokoarretik saharar bat gara…

**Indian enbaxadore izana zara, baina azken urteotan Euskal Herrian bizi zara, ezta?**

Bai, orain dela bi urtera arte egon nintzen Indian, baina osasun arazoak tarteko, hona, Euskal Herrira, etorri nintzen. Izan ere, emaztea euskalduna da, Ormaiztegikoa. Orain, hemendik egiten dut lan nire herriarendako.

**Zenbat urte daramatzazu Saharatik kanpo?**

1975a ezkero, Marokok inbaditu egin gintuenetik; Espainiaren mendean 100 urte egon ondoren, hark marokoarrei saldu gintuenetik. Harrezkero borrokan gaude, eta ordutik ez naiz Saharan egon, nire herriak askatutako Saharako zatian izan ezik.

**Baina Saharako zatirik handiena eta aberatsena dago marokoarren mendean, ezta?**

Hala da, bai, kostalde osoa marokoarrek hartuta daukate. Sahara oso herri aberatsa da, bai arrantzari dagokionez baita fosfatoa, uranioa eta petrolioa dagoelako ere. Joan den mendean, Maroko eta Aljeria Frantziaren mendean egon ziren eta Sahara Espainiaren mende. 1956an, ordea, Marokok burujabetza eskuratu zuen; urte batzuk geroago, Aljeriak… Gu, sahararrok, ordea, Espainiaren mendean egon ostean, 1975. urtean, Marokok inbaditu egin gintuen. Kontuan hartu behar da Marokon ez dagoela aberastasunik; haxixa, patata, tipula eta turismoa besterik ez dago han. Eta, ostera, 30 milioi lagun bizi dira. Horregatik, lurra lapurtu nahi digute. Baina tristeena da Saharako gerra egunero hiru milioi dolar kostatzen zaiola Marokori. Nork ordaintzen du hori? Ekialde Hurbileko herriek, Saudi Arabiak, eta abarrek.

**Zer iritzi daukazu euskaldunok Saharar herriarekiko erakutsitako jarreraren gainean?**

Izugarria da. Euskaldunek beti lagundu izan diguzue, bai herritarrek baita erakundeek ere. Elkartasun handia erakutsi diguzue urtetan. Esaterako, orain dela gutxi, Legebiltzarrak mozio bat onartu du aho batez, NBEri eskatzeko erreferendum demokratiko, aske eta justua lehenbailehen egin dezala. Bestalde, orain abiatu dugun beste kanpaina horretan ere herritarren eta udalen laguntasuna handia izaten ari da. Hori eskertu nahi dut. Espainian ere erakutsi digute elkartasuna, eta horretaz jakitun da Espainiako gobernua ere.

**Espainiak eta Frantziak zeresan handia izango dute, bada, arazoaren konponbidean, ezta?**

Bai, horrela da. Hala ere, Frantziako gobernua gure etsai handia da, Marokoren aliaturik nagusiena delako. Espainiako gobernuak ere oso zatar jokatu zuen gurekin 1975. urtean, Marokori saldu gintuelako. Bestalde, azken urteotan ez du gure alde egin, baina azkenaldian jarrera aldatu egin du eta Saharar herriarendako bake prozesuaren aldeko jarrera erakutsi du NBEn. Frantzian, Erresuma Batuak eta Ameriketako Estatu Batuek baino askoz ere jarrera hobea erakutsi du gurekiko Espainiak. Hortaz, Espainiako gobernuak aldatu egin du jarrera, guk espero ez bagenuen ere. Hori garrantzitsua da, Marokoko gobernuak presio gogorra egiten duelako. Tristea da benetan Marokoko gobernuaren jarrera, bai gurekiko baita herrikideenganako. Beste kontu bat da Marokoko herria, herri zoragarria benetan.

**Inoiz egingo da benetako erreferendum demokratikorik?**

Bai, gu itxaropentsu gara, eta lortuko dugula uste dugu. Bide baketsuak erabili nahi ditugu horretarako, badakigulako arrazoia daukagula. Azkenean lortuko dugu, oso garesti ordaindu behar izan arren.

**Podiuma** 'GOIENKARIA SARIA'N ABENDUKO JOKALARI ONENA

# Jon Altzola | BERGARAKO FUTBOLARIA |

**Infantiletatik Bergaran dihardu Jon Altzolak. Eta orain dela bi urtetik, preferenteko taldean dihardu. 20 urterekin, Juanina Garairen taldeko jokalari garrantzitsuetakoa da. Abenduko jokalari onena izan da, eta GOIENKARIA saria jaso du.**

**Debagoieneko taldeetan diharduten jokalarien artean abenduko jokalari onena izan zara. Zer esan gura du sari horrek zuretako?**

Lehenengo aldia da honelako sari bat jasotzen dudana, eta pozteko modukoa da. Eskerrak eman nahi dizkiot GOIENKARIAri saria ematearren. Talde osoak ondo diharduenean, errazagoa da norberak ere hobeto jokatzea. Taldeak merezi du saria, gauzak ondo egiten ari gara-eta. Lehen postuetara hurbiltzea ez da jokalari baten edo beste baten lanagatik bakarrik. Horretarako, talde osoaren lana behar da, eta guk ondo egin dugula esango nuke.

**Lan horren ondorioz sailkapeneko aurreneko postuetan kokatu zarete. Hasieran mailari eustea zen helburua. Eta orain?**

Oraindik goiz da Liga amaieran non egongo garen aurreratzeko. Partiduz partidu joan behar dugu. Azken lau partiduetan lan bikaina egin dugu. Preferentean maila parekoa dugu talde gehienok. Ez da erraza lau partidu jarraian irabaztea; guk azken laurak irabazi ditugu eta lehen postuetara hurbildu gara.



EDU MENDIBIL

Bi urte daramatza Jon Altzolak Bergarako preferenteko taldean.

**"Taldeak merezi du saria, gauzak ondo egiten ari gara-eta. Lehen postuetara hurbiltzea talde osoak egindako lanaren emaitza da"**

**"Domekan, Aretxabaletaren aurka jokatuko dugu derbia. Derbiak bereziak dira, futbol zelaira jende gehiago gerturatzen da-eta"**

**Behin aurrenekoen artean kokatuta, horri eustea izango da zuen helburua.**

Sailkapeneko seigarren postuan gaude, hirugarren dagoen Anaitasuna taldetik hiru puntura. Iaz, bosgarren postuan amaitu genuen denboraldia, eta ez litzateke txarra postu horretan amaitzea. Partidu asko geratzen dira, eta ikusi egin behar...

**Ligako lehenengo itzulia amaitzear dago. Zein talde nabarmenduko zenituzke?**

Pasajes oso ondo ari da. Tolosa ere talde indartsua da, azken jardunaldietan behera egin duen arren. Elgoibar eta Berio ere ezin ahaztu. Lau horiek ikusten ditut indartsuen; horien artean ibiltzea da orain gure helburua.

**Lehenengo itzulia amaitzeko Aretxabaletaren aurka jokatuko duzue domekan. Derbiak bereziak dira.**

Bai, argi dago. Inguruko talde baten aurka jokatzea beti da berezia. Jende gehiago gerturatzen da futbol zelaira eta jokalariok ere gogo handiagoarekin jokatzen dugu. Aurreko taldean beti egoten da ezagunen bat, eta horrek ere gehiago motibatzen gaitu jokalariok.

**Zein da derbia irabazteko faboritoa?**

Aretxabaletarrek beste urte batzuetan baino okerrago diharduten arren, ez da partidu erraza izango. Etxean jokatzen dute, eta han beti izan dira arriskutsuak. Gure asmoa Bergara aldera puntuak ekartzea izango da.

**Zaila da futbolean aurrera egitea. Zeintzuk dira futbolean dituzun helburuak?**

Futbolean aurrera egitea ia ezinezkoa da. Nire helburua Bergarako taldean jokatu eta ondo pasatzea da. Hori da futbolari dagokionez daukadan helburu bakarra. Orain arte moduan, hurrengo urteetan ere herriko taldean jarraitu nahi nuke.

OXEL EROSTARBE

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Aloña Mendi-Zarautz: 2-1 / Elgoibar-Aretxabaleta: 0-0 / Bergara-Amaikak Bat: 2-1 / Mondra-Segura: 3-2

**ASTEKO JOKALARIRIK ONENAK**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Iban Unanue | (Aloña) | 3 puntu |
| **2.** | Ander Bereziartua | (Mondra) | 2 puntu |
| **3.** | Josu Zubikarai | (Bergara) | 1 puntu |



1 **Iban Unanue** Aloña



2 **Ander Bereziartua** Mondra



3 **Josu Zubikarai** Bergara

**Iban Unanue**
Urte berria hasteko, garaipena Azkoagainen.

**Ander Bereziartua**
*Keixi*-ren jokoa ikustekoa dela diote adituek.

**Josu Zubikarai**
Bergarako zaleek kontentu egoteko arrazoiak dituzte.

**SAILKAPEN OROKORRA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Gorka San Vicente | (Bergara) | 9 puntu |
| **2.** | Jon Altzola | (Bergara) | 6 puntu |
| **3.** | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 6 puntu |
| **4.** | Iban Unanue | (Aloña) | 5 puntu |
| **5.** | Xabi Camino | (Aloña) | 5 puntu |



1 **Gorka San Vicente** Bergara



2 **Jon Altzola** Bergara



3 **Jon Muruamendiaraz** Mondra



4 **Iban Unanue** Aloña



5 **Xabi Camino** Aloña

Goienkaria

**Kirolabur**

## PILOTA/MURUAMENDIARAZ

Iker Muruamendiaraz pilotariaren etorkizuna Aspe enpresan kolokan dago. Prentsan argitaratu denez, bergararra, Matute eta Badiola enpresatik kanpo geratuko dira, taldea murrizteagatik. Iker Muruamendiarazek GOIENKARIAri adierazi dionez, "ez da atsegina izan Aspen jarraituko ez dugula prentsan irakurtzea. Duela hilabete, Patxi Mutiloa Aspeko gerentearekin egon nintzen. Pilotarendako lege berriarekin Gizarte Segurantzako gastuak areagotzen zirela-eta, taldea murrizteko asmoa zutela esan zidan. Oraingoz, ez digute ezer komentatu. Gaztea naiz, eta pilotan jarraitzea da nire asmoa".



## XAKEA/DEBAGOIENA

Bakarkako Gipuzkoako Txapelketa jokatu da Gabonetan, Donostian. Parte hartu zuten 35 xakelarien artean, Fran Migel eta Aitor Alkaide aretxabaletarrak eta Josu Tornay arrasatearra zeuden. Iñigo Arringandoina donostiarrak irabazi zuen arren, debagoiendarrek lan bikaina egin zuten. Fran Migel bigarren izan zen, eta Josu Tornay, hirugarren. Zazpi partidatara izan zen txapelketa. Irabazleak 6,5 puntu lortu zituen. Fran Migelek eta Josu Tornayk 5 puntura berdindu zuten. Elkarren aurka jokatu, eta aretxabaletarrak irabazi zuen. Aitor Alkaidek hamabosgarren postuan amaitu zuen. Luis Angel Ortega arrasatearrarekin batera, Fran Migel eta Josu Tornay ere Euskadiko Txapelketarako sailkatu dira.

## ARKU TIROKETA/OÑATI

Arkulariak elkarteak antolatutako VI. Arku Ligako laugarren jardunaldia jokatuko da etzi, domeka. Hainbat herritan egiten dute arku tiroketa, eta laugarren jardunaldia Etxebarrin (Bizkaia) izango da. Hantxe izango dira Oñatiko Txantxiku Arkulariak taldekoak.

Bizkai aldean aurreko jardunaldietako lana hobetzea da oñatiarren asmoa. Ligaren amaiera Oñatin izango da, datorren otsailaren 2an, Zubikoa kiroldegian.

Arkuaren ingurukoak ezagutu nahi dituztenak elkartera hurbil daitezen eskatu du Txantxiku Arkulariak taldeak. San Lorentzo auzoko Larraña Institutuan egiten dituzte entrenamenduak, astero. Hortaz, hara joatea nahikoa da. Entrenamenduak 18:30etik 21:00etara izaten dira, eta materiala elkarteak jartzen du.

## FUTBOLA/DERBIA

Aretxabaletaren eta Bergararen arteko derbia jokatuko da etzi, domeka. Lehen postuetan jarraitzeko garaipenaren bila joango dira Aretxabaletara Juanina Garairen mutilak. Bittor Muxikaren mutilendako ere garrantzitsua da partidua, lehen itzulia amaitu aurretik sailkapeneko azken postuetatik ihes egin gura duteeta aretxabaletarrek. Horretarako, derrigorrezkoa dute Bergararen aurkako partidua irabaztea. Partidua Ibarran jokatuko da, 16:30ean.

Bestalde, preferente mailako hirugarren taldea, Aloña Mendi, Astigarragara aldera joango da. Mundarroren aurka jokatuko du, domekan, 16:00etan.

Mondrak, berriz, Soraluzen jokatuko du, bihar, zapatua. Partidua 16:00etan izango da.

**Debagoieneko Kirol Zerbitzuen berriak**

# 2002ko Debagoieneko txapelketen zirkuituetako masterrak

Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatuta, 2002ko Debagoieneko txapelketen zirkuituetako masterrak jokatuko dira datozen bi asteburuetan. Debagoieneko hainbat kiroldegitan jokatuko dira masterrak, eta iaz Kirol Zerbitzuek antolatutako squash, frontenis eta tenis zirkuituetan puntu gehien lortu zituzten zortzi jokalari edo bikoteei zuzenduta daude.

Iaz Debagoieneko Zirkuituan parte hartu zuten kirolari onenek hartuko dute parte masterretan. Masterren lehiaketa sistema kanporaketa bidez izango da. Bihar, urtarrilak 11, final-laurdenak jokatuko dira; urtarrilaren 18an, finalaurrekoak; eta urtarrilaren 19an, finalak.

Frontenis eta teniseko kanporaketak bihar hasiko dira. Fronteniseko kanporaketak, Aretxabaletako kiroldegian jokatuko dira, 15:30ean; eta, teniseko kanporaketak Bergarako kiroldegian jokatuko dira. Goizean bi kanporaketa jokatuko dira, 10:00etan eta 12:00etan, eta arratsaldean beste bi kanporaketa izango dira, 16:00etan eta 18:00etan. Squasheko kanporaketak, datorren astean jokatuko dira, Arrasateko Musakola kiroldegian.

2002ko Debagoieneko txapelketen zirkuituetako masterrak antolatzeko, Sportland-en babesa izan dute Kirol Zerbitzuek.

Squash, frontenis eta teniszaleek Debagoieneko kiroldegietan dute hitzordua asteburuan.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA
kirol zerbitzua



Arrasaten, squasha.



Aretxabaletan, frontenisa.



Bergaran, tenisa.

HARMAILATIK…

Kirola
bizi izateko!

**Astelehenero,**
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
**Julen Iriondo**

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko duzu!*




2003.01.07
urtarrilean maldan behera
%50
raino
Deskontuak
mendiko, oinetako
eta kirol
moda sailan
Gaurdanik
Merkealdiak
Garibai Etorbidea 2-6 • Arrasate
SPORTLAND
FORUM SHOPS
KIROLA ZEURE ESKURA

# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 10a

Kultura eta aisialdia

Urtarrilaren 10etik 17ra




## Gizarte-gaia

D*rogak: gizarte-gaia* ekimenaren bidez, hainbat alderdi konplexu dituen gai honi ikuspegi bateratu batetik nahi diogu heldu.

Drogen errealitatea gizarte-errealitateari lotuta aztertuko dugu, *legezko* eta *legez kontrako* drogen artean inolako bereizketarik egin gabe, eta metodologia dimentsio anitza erabiliko dugu, drogen fenomenoa bere osotasunean landu ahal izateko.

Beharrezkoa iruditzen zaigu egoera gure begien aurrera ekartzea —eta horretarako, baliabide bikaina da erakusketa— drogei buruzko politiketan eman ohi dituzten konponbideak eta kontzeptuak guztion artean berraztertzeko. Irudietan drogak bizikide dituzten pertsonak eta taldeak ikusiko ditugu. Batzuk baztertuta eta gizarte eta osasun-baliabiderik gabe bizi dira. Osasun eta higiene-bermerik gabe hartzen dituzte drogak. Beste batzuek aisialdian ongi pasatzeko hartzen dituzte, uste dutelako zenbait droga (alkohola, estasia, kalamua, onddo haluzinogenoak...) atsegin eta gozamen-iturri direla. Batzuek eta besteek, nola edo hala, drogen erabilera ez kontrolatzeko eta mendetasunean erortzeko arriskua dute.

Dena den, konponbideen abiapuntuak ezin du izan errealitate horri entzungor egitea edo desagerrarazten saiatzea. Drogak hor daude eta, beraz, eurekin zentzuz bizitzen ikasi behar dugu. Erantzukizuna sustatzeko modu bakarra dago: ahalik eta informazio gehien ematea, kudeatu eta erabiltzeko baliabideak eskaintzea, arriskuak ezagutaraztea eta beste jarduera batzuei lotutako aisialdi eta gozamen-kultura bultzatzea. Horiek guztiak, gizakia eskubidedun hiritar libretzat hartuta gauzatu behar ditugu.

Hiritarrei begirunea izango dien gizarte anitz eta integratzailearen alde egiteko, tresnarik eraginkorrenak eta, aldi berean, merkeenak bermatu behar dira. Besteak beste, egungo debeku-markoa berraztertzea izango da, ziur aski, epe laburrerako lehentasunetako bat.

Hizpide dugun erakusketak gizarte-errealitatearen alderdi horretara hurbiltzeko bidea nahi du izan. Komunikazioa, elkarreragina eta artea ditu abiapuntu. Horixe da erakusketaren mamia, baina azalak ere badu bere helburua. Hots, zentzumenak gai izatea gizarte-ingurunearen eta gizarteko biztanleen arteko bitartekaritza lasaitasunez edo sentsibilitatez —benetan hitz ederra— betetzeko. Hitz batean, erakusketa ikustea, entzutea eta gozatzea, eta partaidetza eta gogoetarako bidea ematea da gure nahia. Ongi etorri.

GENMA CALVET • Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako zuzendaria

**Erakusketa ibiltaria**

**Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan, Oñatin eta Eskoriatzan**

GOIO ARANA

ERAKUSKETAK/ **'DROGAK: GIZARTE-GAIA' ERAKUSKETA IBILTARIA DEBAGOIENEAN**

# Informazioa, moralitate kutsu barik

DROGEN GAINEKO INFORMAZIO OSOA ESKAINTZEN DUEN ERAKUSKETA ZABALDUKO DUTE MARTITZENEAN ARRASATEN

LEIRE KORTABARRIA

**Drogak gizartean izan dira, daude eta izango dira. Hori ez da aldatu. Aldatu dena da horien gainean informatzerakoan erabiltzen diren ikuspuntuak. *Drogak: gizarte-gaia* erakusketa informatiboa ikusteko aukera izango dugu ibarreko hainbat herritan; datorren astean, Arrasaten.**

Eusko Jaurlaritzako Drogen gaineko zuzendaritza sailak antolatu du *Drogak: gizarte-gaia* erakusketa, eta Debagoieneko udalek hori gurera ekartzea erabaki dute. Hala, urtarrilaren 14an, Arrasaten zabalduko dute, 20ra arte; 21etik 27ra, Bergaran izango da ikusteko aukera; 28tik otsailaren 3ra, Aretxabaletan izango dugu; handik Oñatira pasatuko da, otsailaren 4an; eta, azkenik, Eskoriatzan izango du geldiunea, otsailaren 11tik 17ra.

Oso erakusketa osoa dugu hori, eta drogen gaineko hamaika informazio mota jartzen du gure eskura, hori bai, aurreiritzi edo inongo balorazio barik. Izan ere, Jone Beitialarrangoitia Arrasateko udal teknikariak dioenez, "erakusketaren helburua da erakustea drogak ez direla kasu guztietan bazterketarekin lotutako zerbait; oso droga mota desberdinak daudela, eta erabilpen motak ere oso desberdinak direla. Esate baterako, drogak eta bazterketa aztertzen dira, baina baita drogak kirol esparruan, eta abarrean ere. Hau da, askotariko ikuspuntuak jorratzen dira".



KIM MANRESA

Erakusketan, drogak topikoetatik kanpo -bazterketa, kartzela…- azaltzen dira, testuinguru guztietan.

**ARGAZKIAK ETA INFORMAZIOGUNEAK**

Kim Manresa argazkilariak EAEko hiriburuetan ateratako 50 argazki daude ikusgai. Gainera, zazpi gune informatibo izango dira, honako gaien gainean: *Alkohola aisialdiguneetan*; *Legez kanpo edo ez egotea*; *Drogak eta bazterketa*; *Drogak osasun arazo bezala*; *Babes zentroak*; *Kalteen murrizketa*; eta *Dopina kirolean*.

Eta honako artikuluak irakurtzeko aukera izango dute bisitariek: *Droga zer den –historia, sustantzia motak, efektuak, arriskuak, eta drogen gaineko legedia*; *Droga mendetasuna zer den eta horren neurketa*; *Gaztedia eta drogak EAEn, batez ere alkoholaren kasua aintzat hartuta*; *Droga eta gizartea –kartzela, alkohola eta trafikoa, drogak lan gunean…*; *Prebentzioa, tratamendu motak, aisialdi alternatibak…*

**PERTSONAIA EZAGUNEN IRITZIAK**

Ikus-entzutekoen gunean Jesus Quintero, Ramon Saizarbitoria, Andres Aberasturi, Manuel Vázquez Montalbán, Sisa, Espido Freire, Felix Linares, Fermin Muguruza, Jose Fernández de la Sota eta Aurora Beltrani egindako elkarrizketak emango dituzte. Antolatzaileek diotenez, "oso esparru desberdinetako pertsonaien iritzia jasotzen saiatu gara".

## Oraingo prebentzio politika

**Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako zuzendaritzak antolatu du *Drogak: gizarte-gaia* erakusketa. Bertan drogaren gaineko ikuspuntu guztiak miatzen dira: osasuna, ludikotasuna, dopina, drogak eta gazteak… Erakusketak drogen prebentzioko gaur egungo politikaren berri ere ematen du.**

**Arrasateko Ongizateko teknikariaren esanetan, "orain arteko prebentzio politika nagusiaren oinarria izan da *drogak hil egiten du*, *esan ez drogari…* eta antzekoak; orain, indarrean dagoen politika kalteen murrizketarena da", dio. Eta gaineratzen du: "Politika berri hori ez da debekuan edo moralitatean oinarritzen, baizik eta jendeari ahalik eta informazio gehien ematean; gero, jendeari ahalik eta arrisku txikien duen kontsumoa aukeratzen laguntzea, kontsumitu gura badu. Arriskuen murrizketa ildo beretik doa: alegia, kalteak gerta ez daitezen, arriskuak txikitzea".**

**JONE BEITIALARRANGOITIA** / ARRASATEKO UDALEKO ONGIZATE TEKNIKARIA

## *"Drogen gaineko informazio gehienak balorazio karga handia du"*

**Arrasateko Udaleko Ongizate Saileko teknikaria da Jone Beitialarrangoitia. Hark eman dizkigu *Drogak: gizarte-gaia* erakusketaren gaineko azalpenak.**

**Erakusketa ibiltaria izango da, ezta?**

Bai. Debagoieneko udal guztiok ekimen interesgarria zela pentsatu genuen, eta Arrasateren ondoren, Bergaran, Aretxabaletan, Oñatin eta Eskoriatzan izango da. Ez genuen erakusketa xehea bakarrik egin gura; jendeari gogoeta eragin eta, irrikaren bat badu, udal zerbitzuetara etor dadin animatu gura dugu.

**Zelan definituko zenuke erakusketa?**

Drogen gaineko oso ikuspegi bariatua ematen du. Batik bat, oso informatiboa da, kutsu moral barik. Droga motak eta erabilpenak, dituzten ondorioak eta ikuspegiak eskaini gura ditugu. Argazkiak, informazioa, pertsonaia ezagunei elkarrizketak… daude.

**Zure ustez, gaur egun ez da drogen gaineko behar besteko informazioa ematen?**

Nire ustez, 80ko hamarkadan eta oso informazio urria zegoen; gaur egun, berriz, informazio gehiegi dago, baina dagoenak balorazio karga handia du, bai drogen aldekoengandik, bai eta aurkakoengandik ere. Adibidez, Drogen Nazio Planak *Esan ezetz* mezua du ardatz, baina mezu hori ez da jendearengana iristen. Bestalde, kontsumoaren ardura instantzia goren baten esku uzten du, eta ez dio norberari erabakitzeko baliabiderik ematen.

Beste adibide bat da drogekin lotutako albisteen kasua. Drogekin lotutako heriotzaren bat gertatzen denean, komunikabideek pentsa arazten dute pertsona bat droga jakin bat hartzeagatik hil dela. Ez dute azalpen gehiago ematen. Baliteke pertsona horrek drogak nahastu izana, edo osasun arazoren bat izatea… Horrez gain, drogen gainean mito, beldur, nahasmen… handia dago.

Gure helburua, erakusketa honekin, da jendeari zer hartzen duen, zergatik hartu nahi duen… bere kabuz jakiteko bideak zabaltzea, eta gogoeta bultzatzea. Izan ere, drogaren kontsumoa ezin da pertsona jakinarengandik banatu: kontsumoa ez da bera pertsona baten edo bestearen kasuan.



Jone Beitialarrangoitia.

**Udalean ere informazioa ematen duzue. Jende asko etortzen zaizue galdezka?**

Ez askorik; jendeari kostatu egiten zaio udal batera joatea. Etortzen direnetatik asko semealabek drogak hartzen dituzten susmoa duten gurasoak dira; baita lanen bat egiten ari diren ikasleak edo mendetasun arazo bat duen norbait ere. Aurki, *prebentzioa@arrasate-mondragon.net* helbidea jarriko dugu abian, jendeak modu anonimoagoan zalantzak planteatzeko aukera izan dezan.

**LEHIAKETAK/ HAINBAT SORKUNTZA LEHIAKETA DAUDE ABIAN IBARREAN**

# Urtarrila, idazleen sasoia

## IDAZTEN ETA MARRAZTEN TREBEEK HAU DUTE LEHIAKETETAN PARTE HARTZEKO UNE GOGOKOENA

**Urte hasiera une egokia izaten da abian dauden lehiaketetan parte hartzeko. Debagoieneko euskara elkarteek hainbat literatura lehiaketa dituzte abian, eta ondo dakite idazle gazteek, ikasturteari berriro eustearekin batera, errazago aurkitzen dutela orain inspirazioa.**

Bergarako Jardun elkarteak Amodiozko Gutunen XI. Berrigara Lehiaketa du abian. Bai, bai, oraindik parte hartzeko aukera dago; izan ere, amodiozko gutunak bidaltzeko epea oraintsu bukatu da –hilaren 8an–, baina lehiaketaren sail berria zabalik dago oraindik: Sakelako Telefono Bidezko Maitasun Mezuen Lehiaketa. Hain justu ere, eguaztenera arte egongo da aukera amodiozko mezuak 652 72 94 35 edo 605 71 24 69 telefonoetara bidaltzeko. Epea urtarrilaren 1ean zabaldu zen, eta zortzi egunean 25 bat mezu jaso zituzten; ez da marka txarra, kontuan hartuta sail berria dela.

Urtarrilaren 8ko posta-ikurra daramaten gutunak onartuko ditu Jardunek. Aurreko urteetako esperientzia ikusita, elkarteko arduradunek edizio hau ixterakoan esan zutenez, "oraindik egunotan jasoko ditugu gutunak, eta aurreko urteotan gutun asko eta asko jaso izan ditugu epea itxi ondoren; baliteke oraingoan ere gauza bera gertatzea". Orain arte jaso dituzten lanen artean, %70 posta tradizionalez bidalitako gutunak ziren eta %30, berriz, posta elektronikoz.



BERRIGARA

**San Valentin egunean jakingo dugu zeintzuk diren Amodiozko Gutunen Lehiaketako irabazleak. Irudian, iazko sarituak.**

**ARRASATEN, LEHIAKETA BI**

Arrasateko AED elkarteak oraindik ia hilabetez izango du zabalik XVI. Arrasate Lehiaketetan parte hartzeko epea, otsailaren 7ra arte, hain zuzen. 17 urtetik gorako debagoiendar guztiendako dago zabalik parte-hartzea. Bidali ahal direnak: ipuinak (4-7 orrialde), poesia (100-200 lerro), komikia, bertso-paperak (10-14 bertso), irrati erreportajeak (10-15 minutu eta Arrasaterekin zerikusia duen gai bat landu beharko da) edo euskalki grabazioak (Leintz eta Ugaran ibarretako hizkera).

Horrez gain, Jokin Zaitegi Literaturako Nobel saria euskaratzeko 5.500 euroko beka lehiaketa ere abian du AEDk. Imre Kertész-en *Sorstalanság* lanaren lehen hiru orrialdeak aurkeztu beharko dira, hilaren 17a baino lehen, hain justu ere.

**LOGOTIPO LEHIAKETA**

Bestalde, Arrasateko Udalak Gazteen Kontseiluaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa deitu du. Arrasaten bizi, ikasi edo lan egiten duten 5 eta 30 urte artekoek parte hartu ahal izango dute. *Arrasateko gazteen kontseilua* leloa azaldu behar da logotipoan. Argibideak, 943 77 00 65 telefonoan.

LEIRE KORTABARRIA

**NIREAUKERA**




### 'EL CONFORMISTA' Bernardo Bertolucci

**Ez daukat film faborito bakarra; asko eta asko dira, nire ustez, jeinuen lanak, eta horiek guztiak ditut gustuko. Hala ere, bakar bat aukeratu behar badut, Bernardo Bertolucci zinemagile italiarraren *El Conformista* film zoragarria aukeratuko dut. Alberto Moraviaren istorio eder horretan, zuzendaritzan, argazki, zuzendaritza artistiko eta muntaiako teknika guztiak erabiltzen dira, modu erabat koherente eta argian. Istorioa Erroman hasten da, 1938an, eta 1917ra eramaten gaituzten *flashback*-en bidez, *Marcello* pertsonaia faxista zelan bihurtu zen azaltzen zaigu.** /L.K.



**Aitor Mantxola**

Zinemagile oñatiarra. *Skin Deep* film luzearen grabaketan parte hartu berri du.

**KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal**

**LIBURUA /** Gogoetak literaturaz




**OBABATIKO TRANBIA**

**Iban Zaldua**
Zerberri saila
Alberdania
92 orrialde

Luma fina erabili du oraingoan ere Iban Zalduak. Zalduak dioenez, jende askok bezala zalantzak ditu literaturaren zergati eta zertarakoez; ez daki literaturak ezertarako balio duen edo ez... Horrela jarraitzen du: "Bizio edo grinatzat hartzen dut nik literatura, eta ez erabilgarritasun morala edo politikoa duen zerbait balitz bezala. Eta zertarako bizioak, zertarako grinak (zertarako bekatuak), haietaz hitz egiten ez bada?"

Zazpi begirada ageri dira liburuan, mende amaieran euskal letren tapizari azpildurak arakatzeko.

**LIBURUA /** Poesia




**TUNDRA**

**Igor Estankona**
Susa
78 orrialde

Lerro artean gordetzen diren sentimenduen bila bazabiltza, ez izan dudarik, liburu honetan baduzu esaten dena non aurkitu. Iñaki Mendizabali irakurri nion honokoa Estankonaren gainean: "Oroitzapenetan, kontzeptu handien eremu zabalean, abstraktu horretan nabigatzen ikasi du arratiarrak, eta aberasbide izan da liburuarentzat".

Ez du arrazoirik falta. Mundua beste begiratu batez ikusteko baliozko diren lerroak irakurri ahal dira Estankonaren liburuan; horregatik, liburu ederra, bai horixe!

**DISKOA /** Rockа




**HARROBIAN**

**Zea Mays**
Gaztelupeko Hotsak
7 kantu

*Harrobian* diskoan doinu psikodelikoak batbatean azaltzen dira, iluntasunak eta argiak bat egiten dute pasarte askotan, gitarren pisu organikoa eta sekzio erritmikoaren malgutasuna beti goi-goian daude, eta beti gailentzen Aioraren ahotsa, indartsua, kementsua.

Indartsua da diskoa bera. Dena kontakizun baten harian apailatua. Kirmen Uribek izan du horretan zeresana, eta biribildu egin du istorioa bera. Taldeak egin duen diskorik helduena eta neurtuena. Diseinu landuarekin egina, *digi-pack* formatuan eta ipuin eder batekin barruan.

# Urtarrilak 10-17

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## DEIAK

### ARAMAIO

► **Odol emaileek hitzordua dute** urtarrilaren 15ean, eguaztena, anbulatorioan, 16:00etatik 20:00etara.

► **Aramaioko mapa toponimikoaren aurkezpena** egingo dute hilaren 16an, eguena, kultura etxean, 18:30ean. Mapa egin duten Euskaltzaindiako hainbat kide izango dira bertan.

### ARETXABALETA

► **Benidorm-era bidaia** antolatu dute Basotxoko erretiratuek, apirilaren 27tik maiatzaren 11ra. Izena emateko, joan lehen bailehen Basotxoko bulegora, 11:30etik 12:30era bitartean. 396 euro ordaindu beharko dira.

### ARRASATE

► **Honako ordutegia izango dute aurrerantzean** Musakolako kiroldegiko igerilekuek: 07:30etik 21:00etara, astelehenetik egubakoitzera.

### DEBAGOIENA

► **Baserri ingurunean sortutako plastikoen bilketa egunak** finkatu ditu Deba Garaiko Mendi Nekazaritza elkarteak. Hurrengo bilketa eguna otsailaren 26a izango da. Plastikoa aurreko eguneko arratsaldean utzi beharko da, honako bilketa lekuetan: Eskoriatzan, Zarmiutzeko bidegurutzean; Gatzagan, Dorletako bidegurutzean; Aretxabaletan, Izurieta bidegurutzetik 100 metrora, Mendiolako bide parean, eta Oroko bidegurutzean; Arrasaten, Bedoñan edo Garagartzako DAR tokian; Antzuolan, Egurrebei baserrian; Oñatin, Zañartun, Murgialdaiko Asentsio ermitan, Olabarrietako autobus geltokian, edo Eteo atze aldean; eta Bergaran, Ugarrikan, Santutxun, Muinondoko trenbide ondoan, edo San Juan auzoko eliza aurreko plazan. Bilketa lekuren bat aldatu nahi izanez gero, deitu 943 76 25 47 telefonora.

### ESKORIATZA

► **Atxorrotx hirugarren munduari laguntzeko elkarteak** bazkideak behar ditu. Hondurasen eta Boli Kostan bost proiektu ditu martxan, eta horiei elkartasuna adieraziko dieten bazkideak behar ditu. Horretarako, deitu lehen bailehen 943 71 53 85 telefonora.

### OÑATI

► **Internet-en ibiltzen ikasteko gela, KZGunea,** urtarrilaren 15ean zabalduko dute, eguaztena. Santa Marinako kultura etxean dago.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Hainbat ikastaro jarri ditu abian Ekin Emakumeak elkarteak:** dantza ikastaroa, urtarrilaren 15etik apirilaren 9ra, eguaztenero, 15:00-16:30; eskulan ikastaroa, urtarrilaren 14tik apirilaren 8ra, martitzenero, 15:30-17:30 edo 18:00-20:00; hastapen mailako sukaldaritza tailerra, hilaren 13tik aurrera, 19:00-21:00; eta orratz lan ikastaroa, eguenero, 15:00-17:00. Izena emateko, jo lehen bailehen Ekin elkartera (Pablo Uranga 6) edo deitu 943 79 83 70 telefonora.

► **Parisera bidaia** antolatu du Ekin Emakumeak elkarteak maiatzaren 1eko zubirako. Argibideak jasotzeko eta izena emateko, jo elkartera, martxoaren 28a baino lehen, edo deitu 943 79 83 70 telefonora.

### BERGARA

► **Ziklo berriari ekingo diote** San Joxepe elkarteak eta UNED-ek antolatutako nagusiendako ikasturtearen barne. Ingurumenaren ezagutza izango da bigarren bihilabeteko gaia. Urtarrilaren 16an hasiko dira jardunaldiak, Bergarako UNED-en.

### OÑATI

► ***Zelan motibatu gure seme-alabak ikasketetan*** **gurasoendako ikastaroa** dago abian Elkar Hezi ikastetxean. Datorren jardunaldia urtarrilaren 14an izango da, ikastetxearen DBHko egoitzako mediatekan, 18:30-20:00.

► **Afektibitatearen eta sexualitatearen gaineko ikastaroa** antolatu du Elkar Hezi ikastetxeko Aloña Gurasoen Elkarteak, LHko 4., 5., 6. mailako eta DBHko ikasleen gurasoendako. Ikastaroa urtarrilaren 13tik aurrera izango da, Santa Marina plazako egoitzan, 18:00etan eta 19:30ean. Rafael Godoy psikologo eta sexologoak gidatuko ditu jardunaldiak.

## ANTZERKIA

### ARETXABALETA

► ***Natatxa*** **umeendako antzerki lana** izango da urtarrilaren 18an, datorren zapatuan. Hala ere, sarrerak salgai daude honezkero, 2,05 eurotan, ludotekan eta kiroldegian. Egunean bertan, 3,6 eurotan salduko dituzte.

### ELORRIO

► ***Una noche con el brujo*** **ikuskizuna** eskainiko du Rafael Álvarez 'El Brujo'k gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

► ***Ai, ama!*** **antzezlana** jokatuko du Hika Teatroa taldeak datorren egubakoitzean, urtarrilaren 17an, Arriola aretoan, 22:30ean.

## MUSIKA

### BERGARA

► **Keltoi!, Skacha Galiza eta Des-Kontrol** taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 2s2:30ean.

► **Amimishock** taldeak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

### ELORRIO

► **The Dirties eta Aterkings** taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, Arriola aretoan, 23:00etan, Rock'n'Roll Gaua jaialdiaren barne.

## LEHIAKETAK

### ARRASATE

► **Gazteen kontseiluaren logotipoa** aukeratzeko lehiaketa antolatu dute. Arrasaten bizi, ikasi edo lan egiten duten 5etik 30era artekoek parte hartu ahal izango dute. Jostailuak, kirol materiala eta 750 euro izango dira kategoria bakoitzarendako sariak. Bidali lanak honako helbidera: Udaleko gazteendako informazio zerbitzua;



► ANTZERKIA

### 'PALABRARISMOS' ANTZEZLANA, TXALOREN ESKUTIK, BERGARAN

Hizkuntza da Txalo konpainiako hiru aktorek -Paco Sagarzazuk, Begoña Bilbaok eta Esther Velascok- eta Josetxo Fernández de Ortega piano jotzaileak prestatu duen azken lanaren ardatza. Hizkuntza, hitzak, komunkazioa… baina baita horien harira, eguneroko bizitzan sortzen diren egoera korapilotsu eta umoretsuak. Hitzetatik abiatuta, sentimenduen, intentzioen, pentsamenduen… istorioa ere kontatzen digu Txalo taldeak. Ramón Bareak zuzentzen du lana, eta, bere esanetan, antropologia, linguistika, psikiatria eta neurologia daude egoeron oinarrian, baina baita umorea: Chomsky linguistarekin batera, Charlie Rivel; Freud-ekin batera, Kabaret Literarioa. Labur esanda, argitasunez egindako komedia.

**Non:** Bergaran, Zabalotegi aretoan. **Noiz:** Urtarrilak 17, egubakoitza. **Ordua:** 22:30ean.

M
MEMESA SL
*Industri hornidurak*
943 71 24 25

B&P
Bergara Piel
Aukera ezin hobea jantzi solteetan
180 eurotik aurrera
ESKAINTZA PAREGABEA
Espoloi pasealekua 6 • BERGARA • 943 76 20 70



## TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON, ARRASATEN

*Triki traka, triki tron* programa berria martxan dute Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek, eta Arrasaten grabatuko dituzte hurrengo saioak. Hilaren 13an eta 14an izango da hori, astelehenean eta martitzenean hortaz, Amaia Udal Antzokian, 19:00etan.

Biteri etorbidea, 3; 20.500 Arrasate. Argibideetarako, deitu 943 77 00 65 telefonora.

### EUSKAL HERRIA

► **XVI. Arrasate Lehiaketak** jarri ditu abian Arrasateko AED euskara elkarteak. Ipuin, poesia, bertso-paper, komiki, euskalki-grabaketa eta irrati erreportaje kategoriatan hartu ahal izango duzue parte. Otsailaren 7a baino lehen bidali beharko dituzue lanok honako helbidera: AED Elkartea; XVI. Arrasate Lehiaketak; Pablo Uranga 4, behea; 20.500, Arrasate.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **Drogen inguruko erakusketa** izango da ikusgai Monterron kultura etxean hilaren 14tik 20ra bitartean. 21etik 27ra, Bergaran izango da erakusketa; 28tik otsailaren 3ra, Aretxabaletan; 4tik 10era, Oñatin; eta 11tik 17ra, Eskoriatzan.

### BERGARA

► **Azur Gallastegiren argazkiak** daude ikusgai gaztetxean, otsailera arte.

## JAIAK

### ANTZUOLA

► **Independentzia eguna** ospatuko dute antzuolarrek bihar, zapatua. 10:00etatik gauera arte, musika, herri bazkaria, dantza emanaldia, txaranga… izango dira.

### BERGARA

► **San Antonabat** eguna ospatuko dute San Anton auzoan, datorren egubakoitzean, urtarrilaren 17an.

## MUSEOAK

### ARETXABALETA

► **On Jose Maria Arizmendiarrieta museo-gela berriztatua.** Otalora jauregian, Urkulura bidean.

### ARRASATE

► **Industria erakusketa.** Saiolaneko egoitza nagusiko bigarren solairuan.

### ESKORIATZA

► **Eskoriatzako museo eskola.** Hidalga, 5. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. 943 71 54 53.

### LEINTZ GATZAGA

► **Gatz museoa.** Zapatuan, 12:00, 13:00, 16:30 eta 17:30; domekan, 12:00 eta 13:00. Argibideak: 943 71 47 46.

# Zinema

### ARRASATE

■ ALAI ZINEMA

***8 mujeres***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

***Anjé, la leyenda del Pirineo***
Zapatua eta domeka: 17:00.

■ RIALTO

***8 mujeres***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### BERGARA

■ NOVEDADES

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

***Santa Claus 2***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***11.09.01***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

■ SANTA ANA

***Muere otro día***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Aventuras en Alaska***
Zapatua eta domeka: 17:00.

■ KULTURA ETXEA

***En tierra de nadie***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### EIBAR

■ UNZAGA

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ GURIDI

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza: 17:30, 21:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 20:30.

***Más de mil cámaras velan por tu seguridad***
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 19:45, 22:30.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza: 17:30, 20:45.
Zapatua eta domeka: 17:00, 20:15.

***Wasabi***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Spy kids 2: la isla de los sueños perdidos***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***The ring: la señal***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 17:00.

■ MIKELDI ZINEMAK

***Balzac y la joven costurera china***
Egubakoitzetik domekara: 22:45.

***No dejaré que no me quieras***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Las cuatro plumas***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:45.

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitzetik domekarra: 17:30, 20:15, 23:00.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza: 19:45, 23:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:45, 23:00.

***The ring: la señal***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***La chica de París***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***El planeta del tesoro***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza: 19:30, 22:45.
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:30, 22:45.

***El pianista***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Más de mil cámaras velan por tu seguridad***
Egunero: 17:15, 20:00.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

***Mi gran boda griega***
Egunero: 20:00, 22:30.

***Amén***
Egunero: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***Al sur de Granada***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***La chica de París***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Kamchatka***
Egunero: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***Los lunes al sol***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Olentzero***
Egunero: 17:30.

***Sweet sixteen***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

■ STER ZINEMAK

***El pianista***
Egubakoitza eta zapatua: 17:25, 20:40, 00:05.
Domeka: 17:25, 20:40.

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitza: 18:00, 20:00, 22:25, 00:30.
Zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:25, 00:30.
Domeka: 16:00, 18:00, 20:00, 22:25.

***El planeta del tesoro***
Egunero: 17:50.

***Spy kids 2: la isla de los sueños perdidos***
Egubakoitza: 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.
Zapatua: 16:05, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.
Domeka: 16:05, 18:15, 20:20, 22:25.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza: 18:30, 20:35, 22:40, 00:50.
Zapatua: 16:20, 18:30, 20:35, 22:40, 00:50.
Domeka: 16:20, 18:30, 20:35, 22:40.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egunero: 17:45, 20:55.

***Santa Claus 2***
Egubakoitza: 18:25.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:25.

***Barco fantasma***
Egubakoitza eta zapatua: 20:35, 22:30, 00:25.
Domeka: 20:35, 22:30.

***Muere otro día***
Egubakoitza eta zapatua: 19:50, 22:30, 01:10.
Domeka: 19:50, 22:30.

***La ciudad de los fantasmas***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:55, 22:20, 00:45.
Domeka: 17:30, 19:55, 22:20.

***Wasabi***
Egubakoitza: 18:10, 20:10, 22:10, 00:15.
Zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:15.
Domeka: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX

***Muere otro día***
Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 21:50, 00:25.
Domeka: 19:15, 21:50.

***Amén***
Egubakoitza eta zapatua: 16:50, 19:20, 21:50, 00:20.
Domeka: 11:25, 16:50, 19:20, 21:50.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza eta zapatua: 11:30, 16:00, 17:00, 19:30, 20:30, 23:00, 00:00.
Domeka: 15:30, 17:00, 18:45, 20:30, 22:00.

***Las cuatro plumas***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:30, 21:15, 23:45.
Domeka: 11:20, 15:55, 18:30, 21:15.

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 11:50, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 17:50.
Domeka: 11:45, 15:45, 17:50.

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 19:40, 21:55, 23:55.
Domeka: 17:40, 19:40, 21:55.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:35, 22:45.
Domeka: 11:35, 15:35, 18:40, 21:45.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza eta zapatua: 19:50, 22:00, 00:10.
Domeka: 19:50, 22:00.

***Santa Claus 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:10.
Domeka: 11:50, 17:10.

***La ciudad de los fantasmas***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:45, 20:00, 22:15, 00:30.
Domeka: 11:30, 15:30, 17:45, 20:00, 22:15.

***Más de mil cámaras velan por tu seguridad***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:00, 20:10, 22:10, 00:15.
Domeka: 15:55, 18:00, 20:10, 22:10.

***The ring: la señal***
Egubakoitza eta zapatua: 15:35, 17:50, 20:10, 22:35, 00:45.
Domeka: 11:40, 15:35, 17:50, 20:10, 22:35.

***Una pandilla de altura***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45.
Domeka: 11:50, 15:45.

***Barco fantasma***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:15, 20:15, 22:10, 00:20.
Domeka: 16:30, 18:15, 20:15, 22:10.

***Wasabi***
Egubakoitza eta zapatua: 16:55, 18:50, 20:50, 22:40, 00:35.
Domeka: 12:00, 16:55, 18:50, 20:50, 22:40.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Los lunes al sol: ●●●●● / En tierra de nadie: ●●●● / 8 mujeres: ●●● / Balzac y la joven costurera china: ●●●***

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

### EL SEÑOR DE LOS ANILLOS: LAS DOS TORRES

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Peter Jackson.
**AKTOREAK:** Elijah Wood, Viggo Mortensen, Ian McKellen.

Joan den urteko GOIENKARIAren lehen zenbakian *El señor de los anillos* filmari tarte bat egin genion, eta orain, 2003 urtea hasteko, film horren bigarren zatiaren gaineko azalpena egingo dugu. Lehen partea Tolkien-en istorioaren hasiera besterik ez zen. Orain, bigarren zatiarekin, *Las dos torres,* hain zuzen ere, istorioaren bi herenak ezagutzen ditugu, eta, bukaera falta bada ere, argiago sumatzen da Peter Jackson-en proiektuaren balioa. *Las dos torres* film erakargarria eta ikusgarria da, baina ez zait iruditzen hain lan handia denik: bai aurrekontuari dagokionez eta hartutako lan eta arriskuekin, baina ez pertsonaien garapenean eta istorioaren balioan. Ez dakit Tolkien-en (ez ditut liburuak irakurri) eta gidoilarien errua den, baina ez zait iruditzen, nahiz osagai fantastiko ugari erabili, xarma handiko istorioa denik.

